

---

# 2021 Kudeaketa Plana

OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

---



OSALAN



**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea

Instituto Vasco de  
Seguridad y Salud Laborales



Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**





# 2021 Kudeaketa plana

**Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna**  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Barakaldo, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:

[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:

[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan

[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

**Izenburua:** Plan de Gestión 2021 / 2021eko Kudeaketa Plan.

**Edizioa:** 1.a, 2021ko uztaila.

**Ale-kopurua:** 30 ale.

© Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi  
OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

**Argitaratzailea:** OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Dinamita Bidea, zg. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

**Internet:** [www.osalan.euskadi.eus](http://www.osalan.euskadi.eus)

**Egileak:** OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

**Fotokonposizioa eta Inprimaketa:** Imprenta Garcinuño SL. - San Vicente errepidea 13 - 48510 Trapagaran (Bizkaia).

**Lege Gordailua (LG):** LG BI 01189-2021

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	7
<b>1. SARRERA</b> .....	9
Erreferentzia-esparruak .....	9
<b>2. KUDEAKETA-PLANAREN GARAPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b> .....	10
Planaren garapena eta jarraipena .....	10
Jardueren ebaluazioa eta memoria .....	11
Gizarte-eragileen esku-hartzea .....	11
<b>3. OSALAN-EN 2021EKO KUDEAKETA-PLANEAN JASOTAKO EKINTZAK</b> .....	12
1. ardatza: Laneko arriskuen prebentzioaren kultura (LAP) .....	13
1. Kontzientziaketa eta sentsibilizazioa .....	13
2. Eragileen inplikazioa eta laguntza .....	14
2. ardatza: Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko jakintzaren sorrera eta hedapena .....	15
3. Informazioa .....	15
4. Ikerketa .....	16
5. Prestakuntza .....	17
6. Jakintzaren hedapena .....	18
3. ardatza: Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa .....	19
7. Prebentzio-jardueraren kalitatea .....	19
8. Lan-baldintzen hobekuntza .....	20
4. ardatza: Administrazio publikoak .....	21
9. Kudeaketan prebentzioa txertatzea .....	21
10. Administrazioen arteko koordinazioa .....	21
11. Erakundeen arteko lankidetzak .....	22
12. OSALANen zerbitzuak eta prozesuak .....	23

4. OSALANEK EGINDAKO JARDUNALDI ETA TAILERREN EGUTEGIA. 2021. URTEA .	25
5. 2021. URTERAKO PROPOSATUTAKO ARGITALPENAK.....	27
6. KUDEAKETA-PLANAREN JARRAIPENA EGITEKO KRONOGRAMA.....	29

# AURKEZPENA

Hauxe dugu OSALANen 2021eko ekitaldirako kudeaketa-plana, zeinak ekitaldi honetarako lehentasunezko lan-ildoak eta jarduera-arloak jasotzen baititu lau ardatzen inguruan:

- Laneko arriskuen prebentzioaren kultura;
- Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko jakintzaren sorrera eta hedapena;
- Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa;
- Eta administrazio publikoak.

Ardatz horiek erreferentziatzen hartuta, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak garatu beharreko lan-ildo ugariak aletzen ditu kudeaketa-planak. Hor dira, besteak beste, kontzientzia eta sentsibilizazioa, eragileen arteko lankidetzak; informazioa, ikerketa; prestakuntza, jakintzaren hedapena, prebentzio-jardueraren kalitatea, lan-baldintzen hobekuntza, administrazioaren arteko koordinazioa, erakundearen arteko lankidetzak, kudeaketan prebentzioa txertatzea eta OSALANen zerbitzuak eta prozesuak.

Horien guztien artean, lehentasunezkoak dira: laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia sustatzea; prebentzio-jardueren kalitatea bultzatzea; prebentzioaren eremuan berrikuntza indartzea; lan-modu berriari lotutako arriskuak sakontzea; gutxi egituraturako sektoreetan edo kudeatzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboetan laneko arriskuen prebentzioa indartzea, langile autonomoen kasuan bezala; eta esku-hartze osasuntsuak sustatu eta enpresaburuen artean hedatzea.

Noski, horrez gain, OSALANek laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak ikertzen jarraitzen du etengabe, prebentzioa lantzeko



Lourdes Iscar Reina





eta, hartara, halakoak gerta daitezen saihesteko; horrez gain, aholkularitza eta laguntza teknikoa ematen die langileei eta enpresei, eta prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera antolatzen du, besteak beste.

Gainera, 2021ean, planean aurreikusitako ekintzez gain, OSALANek ahaleginik handiena egingo du lantokietan COVID-19aren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko.

Horiek esanda, hauxe nabarmendu nahi dut ororen gainetik: ezinbestekoak ditugu eragile guztien lankidetzeta, inplikazioa, partaidetzeta eta taldean lan egiteko konpromisoa, horien bidez soilik lortuko baitugu gure helburuak betetzea.

**Lourdes Iscar Reina**

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

# 1

## • Sarrera

Agiri honetan, OSALANek 2021ean lehenetsiko dituen ekintzak eta helburuak jasotzen dira, kontuan hartuta aurreko aldian egindakoaren balantzea, eta ahaztu gabe zein diren erakundearen helburu estrategikoak, xedea eta ikuspegia, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren ziozkoak, hortik eratortzen baitira 2021. urterako kudeaketa-plan honetan jasotako jarduera-lerroak eta lan-arloak.

### Erreferentzia-esparruak

Zalantzarik gabe, 2021-2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiak izan behar du kudeaketa-plan honen erreferentzia-esparrua, zeina egikaritze-fase aurreratuan baitago kudeaketa-plan hau egiteko orduan.

Estrategia berri honek bat egingo du laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeko garatzen diren esparru eta plan estrategikoekin —mundu mailakoak zein Europar Batasunekoak— bai eta Eusko Jaur-laritzaren politikekin ere, identifikatutako erronka eta helburu nagusiak xedetzat hartzen dituzten heinean.

2021-2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia berria egiten ari garen honetan, aurreko estrategiari jarraipena emateko xedea ikus daiteke. Hori dela eta, 2021. urterako kudeaketa-planak ere jarraipena ematea izango du xede, eta, horretarako, estrategia berri honen ondoriozko aldaketak jasoko ditu.

2021eko kudeaketa-planak enfasi handiagoz txertatu nahi ditu generoa, kolektiboak eta COVID-19arekin lotutako arrisku berriak.

# 2

## • Kudeaketa-Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa

### Planaren garapena eta jarraipena

Ekintzetako bakoitzerako honako hauek zehazten dira: irismena, espero den produktua, zereginak eta kronograma, emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak, eta horiek lortzeko beharrezko baliabideen aurreikuspena.

Ekintza bakoitza arduradun bati esleitzen zaio, eta hark hartu behar du ekintza betetzeko ardurua, aurreikusitako baldintzetan. Halaber, lortutako emaitzen berri eman beharko du, planaren jarraipena egiteko.

Denbora-tarte mugatuko proiektu zehatzekin batera, jarduera iraunkorrak ere egiten ditu OSALANek,

hura sortzeko legean eta haren egitura- eta funtzionamendu-araudian aurreikusitako moduan. Horien artean dira, besteak beste: laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak ikertzea; langileei, enpresei eta agintaritzak publikoei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea, eta prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera antolatzea.

2020. urtean COVID-19aren pandemia ezustean agertzean, birusaren hedapena kontrolatzeko eta informazioa emateko zereginetara bideratu behar izan ziren giza baliabide asko. Egoera horrek aurten lehentasun izaten jarrai dezake, eta, beraz, iaz bezala, kudeaketa-plan honetan aurreikusitako helburuen betearazpena baldintzatu dezake, hein batean.

## Jardueren ebaluazioa eta memoria

OSALANen zuzendaritza nagusiak, Erakundea Sortzeko Legean ezarritakoaren arabera, jardueren urteko memoria egin behar du, Kontseilu Nagusira bidaltzeko.

Memoria horretan, ekitaldian egindako guztiaren laburpen bat jasotzen da, bai eta horretarako erabilitako baliabideak ere, helburuaren betearazpenaren eta ekintzen emaitzen gaineko balorazioarekin batera.

Memoria OSALANeko Kontseilu Nagusira igortzen da, jakinaren gainean izan dadin eta onarpena eman dezan. Halaber, EAEko gizarte osoaren esku ere jartzen da, administrazio publiko, garden eta eraginkorrari dagokion moduan.

## Gizarte-eragileen esku-hartzea

OSALANeko Kontseilu Nagusiko kide guztien partaidetzan oinarritutako baterako lan-dinamika bat ezartzeko, jarraipen-batzorde bat aktibatu zen. Horren bidez, gizarte-eragileek OSALANen kudeaketa-plana diseinatu, garatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko hurrengo faseetan parte hartu ahal izango dute.

Horretarako, bilerak egiten dira, iritziak trukatu, lankidetzaren eremuak identifikatu, beharrak hauteman, jarduera-eremuei buruzko proposamenak jaso eta garatutako ekimenen emaitzak aztertzeko.



Eguneratze tailerra: Covid-19 txertoak eta prebentzio-zerbitzuetan izan daitezkeen aplikazioak.

# 3

- OSALAN-en 2021eko kudeaketa-planean jasotako ekintzak

## 1. ardatza: Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) kultura

OSALANen jardura arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
1 Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa	1.1	<p><b>Laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzea</b> eragileen artean eta OSALANen baitako balioak gizartean proiektatzea, jarrera seguruak eta lan-inguru osasuntsuak sustatze aldera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Laneko segurtasun eta osasuna sustatuz, komunikabideen bitartez.</li> <li>● Publizitate-kanpainak garatuz, laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko.</li> <li>● OSALANek Interneten duen presentzia eta herritarrekiko elkarrekintza sustatuz, gizarte-sareen bidez.</li> <li>● Kontzientziazio eta sentsibilizazioko lan horiek guztiak prebentzioko ordezkarietara helaraztea.</li> </ul>
	1.2	<p><b>OSALANen Laneko Segurtasun eta Osasuneko XI. Ikastaroa</b> antolatzea, EHUko Udako Unibertsitateak eskaintzen dituen ikastaroen barruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Aniztasuna eta laneko arriskuen prebentzioa.</li> </ul>
	1.3	<p><b>Laneko arriskuen prebentzioaren kultura</b> areagotzea hezkuntzaren maila guztietan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● LHko ikasleei tailerrak ematea.</li> <li>● Gaztepreben espazioa mantentzea.</li> <li>● ADI proiektuarekin lankidetzan aritzea.</li> <li>● Adin goiztiarretan prebentzioa lantzeko ekintza-plana egitea.</li> </ul>
	1.4	Laneko segurtasun eta osasunari buruzko <b>argitalpenak egin eta hedatzea.</b>
	1.5	<b>Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeari</b> buruzko dibulgazioko ekintzak eta materiala garatzea.



OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
1 Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa (jarraipena)	1.6	<b>Arrisku psikosozialekin lotutako prestakuntza/informazioko materiala eta ekintzak garatzea:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>● PSIKOPREBEN web-espazioa indarrean mantentzea, informazio/prestakuntzako materiala eta edukiak garatuz.</li><li>● Laneko Psikosoziologiari buruzko XI. Jardunaldiak antolatzea.</li></ul>
	1.7	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko mezuak zabaltzea enpresari, gizarte-eragile, elkarte, erakunde espezializatu eta abarrekin egindako <b>topagune eta ekitaldietan</b> .
2 Eragileen inplikazioa eta lankidetzak	2.1	Gizarte-eragileekin batera, <b>OSALANen kudeaketa-planaren jarraipena</b> egitea horretarako sortutako Kontseilu Nagusiaren batzorde espezifikoa bileretan, eta haren ekarpenak jasotzea. OSALANen Kontseilu Nagusiari helaraztea gizarte-elkarrizketarako mahaian garatutako jarduerak.  Kudeaketa-planaren Jarraipen Batzordeak, formalki eratuta dagoen batzordea denez gero, honako puntu finko hauek izango ditu bere gai-zerrendan: <ul style="list-style-type: none"><li>● Laneko ezbeharrak.</li><li>● Aldez aurretik adosten diren beste batzuk.</li></ul>

## 2. ardatza: Jakintza sortzea eta hedatzea

OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
3 Informazioa	3.1	Prebentzio-zerbitzuen <b>gutxieneko datu-multzoan</b> (GDM) oinarrituta, laneko osasunari buruzko informazio-sistema ezartzea. Xedea: Langileen esposizioaren mapa eta kalteen mapa eskuratzea.
	3.2	<b>Gaixotasun profesionalaren susmoaren informazio-sistema</b> , EAeko osasun-zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuek lanean jatorria izan lezaketen gaixotasunen berri eman dezaten. 2021ean, autonomoentzako eta etxeko langileentzako sistema hobetzeko aukera aztertuko da.
	3.3	<b>OSALANen eskumen-eremuko laneko istripuak ikertzea.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Laneko istripu hilgarri guztiak ikertzea (ez-traumatikoak barne, horiek sor ditzaketen arrisku-faktoreak kontuan hartuta), bai eta istripu oso larriak, larriak eta biktima anizkunak.</li> <li>● Laneko istripu arinak ikertzea, baldin eta prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen badira.</li> </ul> Laneko istripuen <b>alerta-sistema</b> bat egitea, ikerketak prebentzio-arlorantz zuzendu daitezkeen.
	3.4	Bere eskumenaren eremuan <b>Laneko Osasuneko Unitateari</b> eskatutako ikerketak egitea.
	3.4.1	<b>Gaixotasun profesionalak ikertzea.</b> Gaixotasun profesionalen alerta-sistema garatu eta ezartzea.
	3.4.2	Agerraldien zaintza <b>epidemiologikoa</b> , alertak eta klusterrak.
	3.4.3	<b>Esposizioaren eta ondorioen arteko harremanaren aholkularitzari</b> buruzko txostenak.





OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
3 Informazioa (jarraipena)	3.5	Laneko historia klinikoa homogeneizatzeko datuen azterketa.
	3.6	EAEko ezbehar-kopuruari eta gaixotasun profesionalei buruzko urteroko txostenak prestatu eta hedatzea.
	3.7	EAEko prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren eta <b>osasun-zerbitzuen fitxategia</b> garatu eta ezartzea, bai eta auditoretza-erakunde espezializatuena ere.
	3.8	<b>Lana utzi osteko osasunaren zaintzarako</b> jarduerak prestatu eta kudeatzea.
	3.8.1	Amiantoaren esposiziopean egon daitezkeen langileen fitxategia kudeatu eta eguneratzea, lana utzi osteko osasunaren zaintzarako, eta amiantoaren esposiziopean egon daitezkeen langileen fitxategia mantentzea, beren lan-bizitzan zehar amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileen osasuna zaintzen laguntzeko.
	3.8.2	Silizearen esposiziopean dauden langileen fitxategi bat martxan jartzeko prozedura diseinatzea.
4 Ikerketa	4.1	OSALANen 2021eko <b>Dirulaguntzen Plan Estrategikoa</b> garatzea.
	4.2	<b>Lanak eragindako minbiziaren ikuskaritza epidemiologikoa</b> ; zehazki, mesoteliomarena, sinu paranasaletako minbiziarena eta angiosarkomarena. Txanda-sistemaren eta minbiziaren egoeraren azterketa. <ul style="list-style-type: none"> <li>● Minbiziari eta txanda-sistemari buruzko azterketa bibliografikoa egitea eta hedatzea.</li> </ul>
	4.3	<b>SAFERA</b> talde europarraren urteko jarduerak garatzea. Laneko segurtasun eta osasunaren eta industriako segurtasunaren eremuan ikerketa-proiektuak diruz laguntzea.

OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
5 Prestakuntza	5.1	Laneko osasunaren arloan lan egiten duten <b>osasu-langileentzako prestakuntza</b> sustatzea.
	5.1.1	<b>Prebentzio-zerbitzuetako osasu-langileei zuzendutako prestakuntza</b> eman eta sustatzea, diseinatutako planaren arabera Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin elkarlanean.
	5.1.2	<b>OSAKIDETZAKo osasu-langileentzako</b> laneko osasuneko prestakuntza erraztu eta sustatzea.
	5.1.3	Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko <b>barneko mediku egoiliarren/barneko erizain egoiliarren prestakuntzan</b> lankidetzan aritzea, OSALANen txandakatzearen bidez (OSAKIDETZAKo Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearekin adostutako hitzarmena).
	5.1.4	EHUrekin lankidetzan aritzea <b>erizaintzako gradu</b> ko ikasleei prestakuntza emateko.
	5.2	Sindikatuarekin batera, <b>prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza</b> kudeatzea.
	5.3	Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea, ikasleei prestakuntza ematen, <b>EHUko laneko segurtasun eta osasunaren masterrean</b> .
	5.4	Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea, ikasleei prestakuntza ematen, <b>Bartzelonako Unibertsitateko laneko toxikologiako gradu</b> ondoan.
	5.5	Laneko arriskuen prebentzioan <b>oinarrizko mailako prestakuntza</b> -plana egitea, <b>langile autonomoei</b> zuzenduta, elkarteekin lankidetzan.
	5.6	<b>Prebentzio-zerbitzuetako teknikariei zuzendutako prestakuntza</b> -plana diseinatu eta egitea.



OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
6 Jakintzaren hedapena	6.1	Langile guztien prebentzioa sustatzea, <b>arrisku kimikoaren</b> aurrean, eta osasunaren gaineko ondorio negatiboak murriztea.
	6.2	Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutza sustatzea, laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko alderdi interesgarriari buruzko <b>informazio eta prestakuntzako ekitaldiak</b> (ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak eta abar) antolatuz.
	6.3	Enpresei, langileei, ordezkariari eta prebentzio-erakundeei aholku ematea eta OSALANen eskumenen inguruan <b>laguntza teknikoa</b> behar dutenean erantzutea.
	6.4	<b>Eraikuntzaren sektorean diharduten langile autonomo eta enpresa txiki eta ertainen artean</b> prebentzioa sustatzea. Lantokiak irekitzen direnean kanpainak garatzea.
	6.5	Laneko arriskuen prebentzioaren gaineko aholkularitza ematea enpresen lantokietan; zehazki, <b>lantokia ireki duten horietan</b> .
	6.6	<b>Arrisku psikosozialen</b> gaineko kontrola eta aholkularitza: <ul style="list-style-type: none"><li>● Kontrol eta aholkularitzarako kanpaina.</li></ul>
	6.7	<b>Osasuna sustatzeko</b> programak egin eta garatzea: adina eta lana, buru-osasuna eta lan-baldintzak, mendekotasunen prebentzioa enpresan. <ul style="list-style-type: none"><li>● «Adina eta lana» gida egitea. Jazarpenari buruzko Euskal Behatokiarekin, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Ergonomiaren Espainiako Elkartearekin lankidetzan.</li></ul>
	6.8	<b>Etxeko langileen</b> laneko osasuna eta segurtasuna sustatzea.

## 3. ardatza: Laneko arriskuen Prebentzioaren Kudeaketa

OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
7 Prebentzio-jardueraren kalitatea	7.1	Trenbide-gainegiturak eraikitzeke lanetan arriskuak prebenitzeko gida teknikoa prestatzea.
	7.2	<p><b>Industria 4.0ren arloko laneko arriskuak prebenitzea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Irizpide teknikoak eta legezkoak ezartzea, egungo «iraultza» teknologikoari lagundu ahal izateko, segurtasuneko estandarrak ahaztu gabe.</li> <li>● OSALANen irizpideak hedatzea, jardunaldi tekniko, liburuxka, web, prentsa eta abarren bidez.</li> </ul>
	7.3	<p>Enpresa handietako jardueren koordinazioaren <b>egoera aztertzea.</b></p> <p>Enpresek hartutako jardunbide onak batzea eta hedatzea, enpresa-jardueren koordinazioa hobetzeko, tamaina txikiagoko kontraten gaineko efektu traktorea aprobetxatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Azterketatik ateratako ondorioak enpresa txiki eta handien eta langileen artean hedatzea.</li> </ul>
	7.4	<p>Prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren kalitatea <b>sustatzeko kanpaina:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Plangintza eta zaintza kolektiborako gomendioak jasotzen dituen gida egitea.</li> <li>● Banakako zaintzarako gomendioak ezartzea. Bereziki sentikorra den langilearen gaitasunaren kontzeptua.</li> </ul>
	7.5	<b>Osasuna zaintzeko protokoloak</b> egin, berrikusi eta hedatzea.
	7.6	Kantauri Itsasoko Ertzeko autonomia-erkidegoekin batera <b>prebentzio-baliabidearen eskuliburua</b> berrikustea.



OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
8 Lan-baldintzen hobekuntza	8.1	<p><b>Lan-munduan bide-segurtasunaren</b> kultura sustatzea eta laneko bide-arriskuak murrizten lagun dezaketen ekintza berriak garatzeko erreferente eta erabilgarri izan daitezkeen tresnak identifikatu eta egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● Istripuak ikertzeko tresna gisa metodologia espezifikoa ezartzea.</li><li>● Istripu arinak bildu eta aztertzea, jarduera-planak definitu ahal izateko.</li><li>● Azterketa estatistikoa egitea, ezbeharren ezaugarriak ulertu ahal izateko.</li><li>● Arrisku-mailak murriztu ditzaketen neurriak identifikatzeko sistema bat egitea.</li><li>● Enpresa handiekin lankidetzan aritzea, laneko bide-segurtasuna kudeatzeko sistema ezarri ahal izateko.</li></ul>
	8.2	<p><b>Psikosoziologiaren gaineko laguntza eta aholkularitza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● Laneko eta Justiziako Agintaritzen eskariei/errekerimenduei erantzutea.</li><li>● Arrisku psikosozialak prebenitzeko dekalogoia.</li><li>● Jatorri psikosoziala duten istripuak ikertzeko metodologia bat egitea.</li><li>● Telelaneanaren azterketa bibliografikoa egitea, enpresek prebentzioa nola landu duten aztertuta.</li></ul>

## 4. ardatza: Administrazio Publikoak

OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
9 Kudeaketan prebentzioa txertatzea	9.1	Organo eskudunekin lankidetzak garatzea; batez ere, laneko arriskuen prebentzioa <b>herri-lanetan eta azpiegitura handien lanetan</b> txertatzeko asmoz.
	9.2	<b>2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala</b> garatzea. E-PREVEN. Lantaldeak: komunikazioa, adina eta aniztasuna; nekazaritza eta abeltzaintza; basogintza; arrantza; basogintzako balio-katea; nekazaritza eta abeltzaintzako balio-katea; arrantzako balio-katea. <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskadipreben 2025eko udako ikastaroa. 2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala.</li> </ul>
10 Administrazioen arteko koordinazioa	10.1	<b>2021-2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia egitea</b> , interes-taldeekin lankidetzan (Eusko Jaurlaritzako sailak, gizarte-eragileak, gizarte zientifikoak, prebentzio-zerbitzuak...). <ul style="list-style-type: none"> <li>Estrategian hitzurre moduan sartzea «Laneko segurtasun eta osasunerako estrategia berria sustatzeko akordioa», Gizarte Elkarrizketarako Mahaian hartua.</li> </ul>
	10.2	<b>Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea</b> , OSALANeko Kudeaketa-planeko ekintzak garatzeko arauen proposamenak eta oinarritzko irizpideak ezartzeko: <ul style="list-style-type: none"> <li>Araudiaren garapena, lantaldeetako partaidetza, gaixotasun profesionalen susmoa, Euskadiko Osasun Plana, Euskadin Minbiziari Arreta Emateko Plana.</li> </ul>
	10.3	EMAKUNDEekin sinatutako hitzarmena garatzea, baterako ekintzak egiteko, <b>laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatze aldera</b> .
	10.4	Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen <b>laguntza teknikoko eskariak</b> eta laneko ikuskaritzarenak artatzea.



OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
10 Administrazioen arteko koordinazioa (jarraipena)	10.5	<p>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin lankidetzan aritzea, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek <b>makinen segurtasunari buruzko zuzentaraua betetzen</b> duten kontrolatzeko, horretarako dagoen protokoloa garatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● OSALANek Administrazio eta Segurtasun Industrialeko Zuzendaritzari abisuak egiteko zirkuitua: txostena.</li> <li>● Arrisku-egoera bat eragiteko behar besteko akatsak dituzten makinen berri ematen da.</li> <li>● Helburua: neurri egokiak ezartzea (erantzukizunak egozte, industriagatik).</li> </ul>
	10.6	<p><b>Amiantoa duten materialak erretiratzeko lan-planen</b> kontrola egitea, lan-agintaritzaren eskariz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Koordinazioa ezartzea lan-agintaritzarekin eta laneko eta gizarte-segurantzako ikuskaritzarekin.</li> </ul>
	10.7	<p><b>Kanpoko prebentzio-zerbitzuek ziurtapen-baldintzak</b> betetzen dituztela kontrolatzea eta Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua sortzea, lan-agintaritzak hala eskatuta.</p>
	10.8	<p><b>Osasun-baimenen eta prebentzio-zerbitzuen kontrolaren arloko</b> eskumenak gauzatzea.</p>
	10.9	<p>OSALANen jaso diren <b>Laneko Osasuneko Unitatearen</b> eskumen-esparruari dagozkion <b>salaketak</b> aintzat hartzea, unitate hori baita prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuen agintaritza.</p>
11 Erakundeen arteko lankidetzak	11.1	<p><b>Udalerrietako</b> udalei aholkularitza ematea <b>amiantoa duten materialak kudeatu eta tratatzeko</b> moduari buruz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Tresnak egin eta udalen esku jartzea, udalerrietan egiten diren obretan amiantoaren presentzia antzemateko.</li> <li>● Obretan amiantoaren presentzia antzemateko ikastaro aditu bat egitea, udal-teknikariei zuzenduta, eta ikastaro hori udalen esku jartzea. OSALANek ikastaro hori emateko aukera ezartzea.</li> <li>● Udalekin lankidetzan aritzea, Geoeskadi aplikazioan amiantoaren geolokalizazioa ezartzeko.</li> </ul>

OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
11 Erakundeen arteko lankidetzak (jarraipena)	11.2	Jarraipena eta ebaluazioa egitea OSALANentzat interesgarriak izan daitezkeen edo OSALANen ezagutza jasotzeko interesa izan dezaketen <b>lantaldeei eta erakundeen arteko batzordeei</b> buruz.
	11.3	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin lankidetzan jardutea, <b>Desgaitasunak Balaratzeko Taldeen</b> bileretan parte hartuz.
	11.4	<b>Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin sinatutako amiantoari buruzko hitzarmena</b> garatzea, eta jarraipena egitea.
12 OSALANen zerbitzuak eta prozesuak	12.1	<b>OSALANen 2021eko Kudeaketa-plana</b> egin eta hedatzea, bai eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea ere, eta emaitzak kasuan kasuko jardueren memorian argitaratzea.
	12.2	OSALANeko artxiboak EAEko <b>administrazio orokor eta instituzionaleko artxiboko sistemara</b> egokitzea.
	12.3	<b>Aurrekontuaren betearazpen-mailaren</b> jarraipena egitea.
	12.4	OSALANen <b>zerbitzuak eta prozesuak</b> hobetzea.
	12.5	<b>Sistema-plana</b> osatzen duten aplikazioak garatzea.
	12.6	<b>Higiene-laboretegiaren</b> bidez zerbitzuak ematea. <ul style="list-style-type: none"> <li>● Neurketa analitikoak egitea.</li> <li>● Irakaskuntza eta ikerketako zereginak higiene industrialaren arloan.</li> </ul>
	12.7	<b>Barneko prestakuntza-plana</b> egin eta betearaztea. <ul style="list-style-type: none"> <li>● Barne-komunikazioa sustatzea.</li> </ul>
	12.8	<b>OSALANen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2018-2021)</b> bete dadila sustatzea eta haren jarraipena egitea.





OSALANen jarduera arloa	Ekintza kodea	Ekintzaren izena
12 OSALANen zerbitzuak eta prozesuak (jarraipena)	12.9	OSALANen Euskara Plana bete dadila sustatzea eta haren jarraipena egitea.
	12.10	Arau, kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen jarraipen juridikoa egitea.
	12.11	COVID-19arekin lotuta OSALANek egindako ekintzak. <ul style="list-style-type: none"><li>Osasun-arloak koordinatutako eta OSALANek betearazitako jardueren berri emango da Kontseilu Nagusian.</li></ul>



# 4

- OSALANek egindako jardunaldi eta tailerren egutegia. 2021. urtea



Jardunaldia / Tailerra	Aurreikusitako data	Aurreikusitako lekua
Eguneratze-tailerra: Covid-19 txertoak eta prebentzio-zerbitzuetako aplikazio posibleak	Otsailak 16	Online
Langile autonomoei zuzendutako informazio-hitzaldia: Zer jakin behar dut laneko arriskuen prebentzioari buruz?	Martxoak 10	Online
Aurkezpena: «Osasuna zaintzea, laneko arriskuak prebenitzeko» gidaliburua	Martxoak 16	Online-line
Laneko arriskuen prebentzioaren esparru juridiko-arautzailea Industria 4.0.ren aurrean	Apirilak 14	Online
Silizearen gaineko protokolo berria aurkezteko jardunaldia	Maiatzak 11	Online
Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko OSALANen XI. Udako Ikastaroa. Aniztasuna eta laneko arriskuen prebentzioa	Ekainak 17-18	Miramar Jauregia, Donostia
EAE eta Akitaniaren arteko laneko medikuntzako jardunaldiak: telelanaren tailerra eta lan-medikuntzaren egokitzapena	Irailak 21-24	Zehazteke
Laneko Psikosoziologiari buruzko OSALANen XI. jardunaldiak	Azaroa	Zehazteke
Eguneratze-tailerra: sorbalda eta ukondoko patologiak	Azaroak 9	Online
Jornada técnica Eraikuntzako jardunaldi teknikoa ca de construcción	Zehazteke	Zehazteke



5

- 2021. urterako proposatutako argitalpenak



### Argitalpenak (Behin-behineko izenburuak)

- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia 2021-2026.
- Arriskuekiko eta arriskuetatik eratorritako kalteekiko jarreretan eta jokabideetan eragiten duten genero-faktoreen azterketa.
- Ekitaldi eta ikuskizun publikoak. Ekitaldiak muntatu eta desmuntatzeko planifikazioaren jardunbide onen esku-liburua.
- Plangintza eta zaintza kolektiborako gomendioen gida.
- «Adina eta lana» gida.
- Trenbide-gainegiturak eraikitze lanetan arriskuak prebenitzeko gida. Obra berria.
- EAEko lan-istripuen txostena. 2020ko txostena.
- EAEko gaixotasun profesionalen susmoen txostena. 2020ko txostena.
- EAEko gaixotasun profesionalei buruzko txostena. 2020ko txostena.
- Laneko segurtasun eta osasunari buruzko legedia.
- 2020ko Jardueren Memoria.
- 2021eko Kudeaketa-plana.
- Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna zaintzeko berariazko protokoloa.
- Langileen osasuna zaintzeko berariazko protokoloa: sudur-barrunbeetako eta sinu paranasaletako adenokartzinoma, zur-hautsaren esposiziopean izaten diren langileetan.
- Langileen osasuna zaintzeko berariazko protokoloa: silikosisia.

# 6

## Kudeaketa-planaren jarraipena egiteko kronograma

2021	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua
Kudeaketa-planaren Jarraipen-batzordea	Kudeaketa-planaren proposamenak adostuko dira					ekainak 7						abenduak 2
Prestakuntza-batzordea			martxoak 25			ekainak 15			irailak 30			abenduak 16
Kontseilu Nagusiaren bilera			martxoak 25			ekainak 15			irailak 30			abenduak 16



